

1.BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure ideia hondartzetan zigarro-muturrak biltzeko edukiontzi bereziak jartzea da, eta bildutako muturrak paper birziklatu bihurtzea. Helburua da tokiko ingurunea garbi mantentzea eta hondakinak murriztea, aldi berean produktu erabilgarria eta iraunkorra eskaintzen duelarik.

Beste produktu antzekoetatik bereizten gaituena da ingurumenak kutsatzen duen material bat berrerabiltzen dugula, eta horrekin jendeak egunerokoan erabil dezakeen paper ekologikoa sortzen dugula. Paperak kolore eta diseinu pertsonalizagarriak ditu, eta horrela bezeroek euren gustura diseinatu ahal izango dute.

Gainera, ontzien diseinua erakargarria izango da eta sentsibilizazio mezu bat eramango du: “Kutsadura gutxiago, bizitza gehiago.”, jendeari hondakinak modu arduratsuan biltzeko ohitura sustatzeko.

